



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “BILBOKO HILTEGIA – 2004” TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak “Bilboko Hiltegia” txostena mamitu du, 2004ko ekitaldiaren jarduerari eta sozietatea desegiteko prozesuari buruzkoa. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du.

HKEEk egindako fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoa: langileria eta obren kontratazioan, erosketa eta zerbitzuen alorrean ezargarria den arautegia berrikustea.
- Finantzariora: Urteko Kontuak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat etortzea.
- Sozietatea desegin eta likidatzeko prozesua berraztertzea: lan kontratuak desegin eta jarduera garatzen zen finkatik zerbitzu publikoa kentzea.

Lehenengo atalari dagokionez, txostenak adierazi du Sozietateak arautegia bete duela, salbuespen delarik ezin egiaztatu izana langileria kontratatzeko jarraitutako prozedurak (410 aldi baterako kontratu 32 langilerekin) legez eskagarri diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete dituela eta 125.000 euroko gastuen kontratazioan publizitate eta lehia printzipioak bete ez izateagatik.

Urteko Kontuei dagokienez, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du ekitaldiko jardueraren alderdi esanguratsuak eta ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala erakusten dutela; salbuespen da langileei sustatutako baja kontzeptuan ordaindutako 3,6 milioi euroko kostuari buruzko informazio eza, 2005eko martxoan hitzartutakoak eta 2004ko abenduaren 31n sozietatearen balantzean zuzkituak egon behar zuketanak.

Sozietatea desegin eta likidatzeko prozesuari dagokionez, HKEEk onetsitako txostenak honako ondorio hauek besarkatzen ditu:

- Bilboko Hiltegia, Saren Administrazio Kontseiluak erabaki zuen Bilboko Udalari eskatzea Sozietatearen desegitea hiltegiako langileak birkokatuz gauza zezala, bai beste enpresa publiko batzuen bitartez, bai zerbitzuak hiltegiako operatzaile berriarekin emanez. HKEEren iritzira, eskabide hau ez zatekeen aukera bakar batera mugatu behar, zegoen bakarra balitz modura.



- Bilboko Hiltegia Aztertzeko Batzordeak -Administrazio Kontseiluaren eskabideak balio-neurtzeko Udalak sortua- txostenean adierazi zuen enpresaren egoerari irtenbidea emateko hiltegi zerbitzuaren emanaldia eten beharko litzatekeela, nahitaezkoa ez delako eta jarduera errentagarri bilakatzea ezinezkoa delako. Txosten honek itxieraren kostu laborala kalkulatzeko bi suposamendu bereizten ditu:

- Plantila birkokatu gabe, antzinasun urte bakoitzeko 45 egun legez finkatutako gehiengoekin ordainduz gero, 5,9 milioi euroko kalte-ordainak egiten ditu.
- Plantila birkokatuz gero: 58 urtetik gorako 17 langileak aurrejubilatzeke kalte-ordainen kostua 0,9 milioi eurokoa izango litzateke, gainerako plantilaren kostua euren lantoki berrietan mantenduz.

HKEEren fiskalizazio txostenak azaleratu du Azterketa Batzordeak ez duela jarduera eteteagatik kaleratze kolektiboaren aukera aintzat hartu, Langileen Estatutuak arautzen duena, urteko 20 eguneko kalte-ordaina, gehienez 12 hilekoetan, emanez.

- Bilboko Udalaren Osokoak 2004ko irailaren 30ean erabaki zuen Azterketa Batzordearen Txosten-Oroitidazkia behin-betiko onestea eta Bilboko Hiltegia, SA Sozietate Publikoa desagitea, aurretik jendaurreko informazioa eman eta gero.
- 2005eko martxoaren 31n akordioa adostu zen sozietatearen ordezkarien eta langileen artean, Hiltegian zeuden kontratu guztiak desagiteari buruzko negoziaketei amaiera ematen diena. Akordio honek 57 langile finkoak eragiten ditu, horietako 33 birkokatzen dituela eta 23 kaleratzen, antzinasun urte bakoitzeko 45 eguneko soldata eta gehienera 42 hileko emanez. Aurreikusitako kalte-ordaina 3,3 milioi eurokoa zen eta ez zuen gerora langile bati ordaindutako 0,3 milioi euroko zenbatekoa barne hartzen.

HKEEren iritzira, Langileen Estatutuan araututako kaleratze kolektiboaren aukera edo, kasua balitz, plantilaren atal bat aurrejubilatzeke aukera egin ez izanak, udal aurrekontuaren kontura kostua garestitzea eta bere sozietate publikoen plantilara 33 langile txertatzea ekarri du, justifikatua egon gabe. Erakunde Fiskalizatzaileak jakinarazi duen legez, Kalte-ordaina eman zitzaizen langileen kasuan, aukera zegoen 58 urtetik gorako ziren horietako 17 aurrejubilatzeke, 0,9 milioi euroko kostuarekin, langile hauei ordaindu zaizkien 2,5 milioi euroen aldean. Esaterako, jada 65 urteak beteak zituen langile bati eman zaio kalte-ordaina.



- Hiltegiko langileriari kalte-ordainak ordaintzeko beharrezko kreditu osagarria onetsi zuen 2005eko apirilaren 28ko Udalbatzaren Erabakiak kreditu hori aldez aurreko erretiroetarako bereizi zuen; ordea, Sozietateak ordaindutako zenbatekoa oso-osorik sustatutako bajetarako erabili da, Udalbatzaren Erabakian jasotakoaz besteko kontzeptua dena.
- Hiltegiko instalakuntzen errentamenduari dagokionez, HKEEk adierazten du enkanterako ondasun higigarriei emandako balioa sozietatean dagoena baino txikiagoa izan dela eta horren ondorioz, lizitazio tipoa 17.290 euroan murriztu delarik. Azken esleipena lizitazio zenbatekoaren gaineratik 37.000 eurokoa izan zen.